



## OSASUN TXOSTENA

### MENDEKOTASUNA AZTERTZEKO ESKAERA

Izen-deiturak: \_\_\_\_\_

Txostena eman den eguna: \_\_\_\_\_

Esazu zein diren **diagnostikoak** (GNS-10, CDIAP-2), pertsona honen mendekotasunarekin lotura duten gaixotasun, nahaste edo bestelako osasun arazoena:

**Diagnostiko nagusia (gutxienez 1):**

Mendekotasun egoerarekin zerikusia duten **beste diagnostiko batzuk**:

Esazu **gaur egun zer tratamendu** dituen aginduak:

Dituen urritasunak **iraunkorrak** dira?

- Bai  
 Ez. Kasu honetan, esazu zein neurri terapeutiko edota errehabilitatzaile jartzen ari zaizkion.

Ba al du urritasunik **funtzio mentaletan** (nahaste kognitiboa, adimeneko atzerapena, gaixotasun mentala, beste batzuk)?

- Ez  
 Bai

Aplikatu zaio **Barthelen Eskala**?

- Bai. Hala bada, galde-sortari erantzun edo fotokopia erantsi.  
 Ez. Kasu honetan, galde-sortari erantzun.

Sin.: Osasun arloko profesionala \_\_\_\_\_ Elkargoko zk. \_\_\_\_\_

## BARTHELen ESKALA

Eskala aplikatu zitzaien data: \_\_\_\_\_

### Jan:

- (10) Berez baliatzen da. Gai da bakarrik jateko, eta denbora arrazoizkoan. Otorduak beste batek prestatuak eta zerbitzatuak izan daitezke.
- (5) Laguntza behar du. Haragia edo ogia mozteko, gurina zabaltzeko...., baina gauza da bakarrik jateko.
- (0) Ez da berez baliatzen. Beste batek eman behar dio janaria.

### Garbitu (Bainatu):

- (5) Berez baliatzen da. Gai da gorputz guztia garbitzeko. Gai da bainugelara sartzeko eta ateratzeko. Den-dena egin dezake inor izan gabe ondoan.
- (0) Ez da berez baliatzen. Laguntza behar du, edo norbait ondoan egotea.

### Jantzi:

- (10) Berez baliatzen da. Gai da laguntzarik gabe jantzeko eta erantzeko.
- (5) Laguntza behar du. Gutxienez gauzen erdiak egiten ditu bakarrik, arrazoizko denboran.
- (0) Ez da berez baliatzen.

### Bere burua apaindu:

- (5) Berez baliatzen da. Gauza guztiak egiten ditu inoren laguntzarik gabe. Behar diren gauzak beste pertsona batek emanak izan daitezke.
- (0) Ez da berez baliatzen. Laguntzaren bat izaten du.

### Libratu:

- (10) Eusten dio kakari. Ez zaio behin ere eskapatzen kaka.
- (5) Eusteko problemak izaten ditu noizbehinka. Astean behin gehienez ere. Laguntza behar du enemak eta supositorioak jartzeko.
- (0) Ez dio eusten kakari.

### Gernua (aurreko astea baloratu):

- (10) Eusten dio pixari. Ez zaio behin ere eskapatzen pixa. Edozerekin moldatzen da ongi, bakarrik.
- (5) Eusteko problemak izaten ditu noizbehinka. Gehienez egunean behin eskapatzen zaio pixa. Lagundu behar zaio zunda erabiltzeko edo bestelako laguntzez baliatzeko.
- (0) Ez dio eusten pixari.

### Komuna:

- (10) Berez baliatzen da. Bakarrik sartzen eta ateratzen da, eta ez du beste inoren laguntzarik behar.
- (5) Laguntza behar du. Laguntza pixka batekin ongi moldatzen da: gorputzetik libratzeko eta garbitzeko. Bakarrik garbitzen da.
- (0) Ez da berez baliatzen. Ez da moldatzen norbaitek laguntza handia eman ezean.

### Besaulkira edo ohera joateko:

- (15) Berez baliatzen da. Ez du laguntzarik behar.
- (10) Laguntza txikia behar du. Norbaitek jarraibideak ematea behar du, edo laguntza fisiko txikia.
- (5) Laguntza handia behar du. Pertsona indartsu edo entrenatu baten laguntza behar du.
- (0) Ez da berez baliatzen. Garabia behar du, edo bi pertsonak jasotzea. Ez da gauza eserita egoteko.

### Ibili:

- (15) Berez baliatzen da. Gai da 50 m egiteko, edo etxean horren pareko dena, laguntzarik gabe edo inor ondoan izan gabe. Laguntza-tresnaren bat behar du (esku-makila, makulua), baina ez ibiltzeko eskorga. Protesirik erabiltzen badu, gauza da laguntzarik gabe jartzeko eta kentzeko.
- (10) Laguntza behar du. Norbait ondoan egotea behar du, edo norbaitek laguntza fisikoa ematea. Ibiltzeko eskorga behar du.
- (5) Berez baliatzen da. (Aulki gupildunean) 50 m egiteko. Ez du laguntzarik behar, ez inor ondoan ere.
- (0) Ez da berez baliatzen.

### Eskailerak igo / Jaitsi:

- (10) Berez baliatzen da. Gai da solairu bat igotzeko eta jaisteko, laguntzarik gabe eta inor ondoan izan gabe.
- (5) Laguntza behar du. Laguntza behar du edo norbait ondoan egotea.
- (0) Ez da berez baliatzen. Ez da gauza eskailera-mailak igotzeko

**AZKEN PUNTUAZIOA:** \_\_\_\_\_ puntu

Sin.: Osasun arloko profesionala \_\_\_\_\_ Elkargoko zk. \_\_\_\_\_